

BERMEO / Gazteentzako literatur lantegia berriz antolatu dute

BERMEO. Udalerrian 'literaturarako zaletasuna badela eta', Bermeoko Euskera Sailak, Joxe Miel barandiaran Udal Liburutegiak eta Gazteentzako Informazio Bulegoak -GIZ-, literatur lantegia antolatu dute, seigarren urtez jarraian. Urriaren 31tik azaroaren 28ra arte eta larunbat goizetan, Iratxe Retolaza euskal filologian lizentziatua, idazle eta egunkarietako kolaboratzailea izango da gazte idazleen tailerraren gidari.

Literatur lantegian izena emateko epea urriaren 30ean bukatuko dela eta, berau 'euren bulegoetan edota Udal Liburutegian egin daitekela' jakinarazi dute GIZeko arduradunek. Hamar ordu izango duen ikastaroa larunbatetan, 11:00etatik 13:00ak arte, eskainiko da Udal Liburutegian astero, doakoa izango delarik. Parte hartuko duten 12 lagunek 'literatur testuak bereganatu eta sortzeko gakoak jasoko dituzte, baina baita beronen alderdi ezberdinetan sakondu ere', gaineratu dutenez.

Bestetik, saio praktikoen bitartez azaroaren 28ra arte 'testuak taldean irakurri eta komentatuko dira' eta 'partehartzaileek testuaren alderdiak identifikatzen ikasiko dute'.